

# Lainoa janez, mendafina usainduz

Kolore oso desberdineko poema liburu bana ekarri dute Juan Kruz Igerabidek eta Aintzane Galardik

:: N. AZURMENDI

**DONOSTIA.** Juan Kruz Igerabide (Aduna, 1956) eta Aintzane Galardiren (Oiartzun, 1969) artean hamairu urteko aldea dago. Ez da alde handia, ez behintzat literaturgintzan duten eskarmentuarekin erkatzen bada. 1984an 'Notre-Dameko oihartzunak' poema liburua (Elkar) argitaratu zuenetik, etengabe ekarri ditu genero eta tankera desberdinetako liburuak lanbidez unitbertsitateko irakasle den Igerabidek. Galardi ere irakaslea da, eta Nafarroan egiten du lan. Bi poema liburu zituen orain arte argitaratuak, 2005ean eta 2007an, biak ere Euskaltzaindia-BBKren Felipe Arrese Beitia olerki-saria jasotakoak.

Poema liburu bana eman dute orain argitara, Erein argitaletxearen eskutik, eta elkarrekin aurkeztu zituzten atzo Donostian. «Klasiko bat eta gazte bat» elkarren ondoan. Horrela aurkeztu zituen poesia sailari eusten dion Erein argitaletzeko editore Inazio Mujikak bi


liburu oso desberdinok eta horien egileak.

## Koloreak eta auria

'Lainoa janez' argitaratu du Igerabidek, eta 'Mendafin usaineko iluntzeak' Galardik. Igerabiderenak azal iluna du, Elena Laura adiskidearen irudi euritsu batek zertxobait argitua. Arrosa kolorea eta mendafin sortatxo dira nagusi Galardirenean, eta berak egindako ilustrazio koloretu bat. Barrualderako ere nahi zituen koloretako marrazkiak, «beste herrialde batzuetan egiten duten bezala», baina Euskal Herrian «helduentzako poesia liburu batek ez du koloretarako ematen».

Mota horretako liburuak publikoarengana helaraztea oso zaila dela esatean eta haikuzaleatasunean etorri ziren bat bi idazleak, eta poesia idazteko grinak zailtasun prosaikoei aurre egiteko kemena ematen diela onartzen.

Hortik aurrera, kolore oso desberdineko lanak ekarri dituzte. «Udazkenetik idatzia» da 6-8 urtez sortutako poemak bildu dituen Juan Kruz Igerabideren lana. Ana Galardik, berriz, Marokora egindako bi daiek piztutako lilura eramane du liburu koloretu eta 'usaintsura'; zeru urdinez, fular berdez, egun gorritz eta mendafin usainez betetako li-



Aintzane Galardi eta Juan Kruz Igerabide, atzo Donostian. :: UNANUE

MENDAFIN USAINENKO ILUNTZEAK AINTZANE GALARDI

Generoa: Poesia.  
Argitaletxea: Erein.  
Orrialdeak: 96.  
Prezioa: 8 euro.

LAINOA JANEZ JUAN KRUZ IGERABIDE

Generoa: Poesia.  
Argitaletxea: Erein.  
Orrialdeak: 94.  
Prezioa: 11 euro.

burura, alegia. Gaiak ez ezik, poemaren arteko harremanek ematen diote batasuna liburuari. Egilearen ilustrazioekin batera, haiku saioek eta aipu ugariek osatzen dituzte poemak, gehienak «oso narratiboak eta laburrak». Oso sensoriala da liburua, poema askotan zentzumenek hartzen diote gaina gaiari. Galardiri saria eman zion epaimahai-kide izanenez, liburua oso ondo ezagutzen duen Juan Kruz Igerabidek azaldu zuenez, oso sentsuala ere bada.

Juan Kruz Igerabideren liburuak, berriz, gehiago du filosofiatik -«filosofia praktikotik»- eguneroko gauza eta pasarte xumeen eragine-tik baino. «Euripeko poemak» dira, alegia, «bizitzari udazkenetik begiratzeko» batek idatzitako, «ahantzuraren lainoa janez», oroitzen saiatuz. Liburua omenaldi moduko bat da, halaber, «bizitzan zehar lagun izan ditudan adiskide eta etsaiei», nahiz eta poema bakar bat dagoen horietako bati eskainia, iaz zendu zen Mamen izeneko adiskideari. Heriotza hark asko hunkitu zuela aitortu du Juan Kruz Igerabidek, baina etsipenera eramane beharrezan «bizitzeko gogoia berpiztu» zion min hark, eta hori ere badago 90 orrialdetan 87 poema bildu dituen liburuan.

# IMSERSO

Inscribete ya en  
VIAJES El Corte Inglés

2015/16

**BALEARES**  
8 días desde **182,75€**  
Pensión Completa  
Vuelos INCLUIDOS

	ISLAS CANARIAS		ISLAS BALEARES	
			TEMPORADA BAJA	TEMPORADA ALTA
8 DÍAS (CON TRANSPORTE)	314,23 €		182,75 €	236,55 €
10 DÍAS (CON TRANSPORTE)	387,44 €		233,68 €	293,87 €
15 DÍAS (CON TRANSPORTE)	551,94 €		322,84 €	396,80 €
COMBINADOS 15 DÍAS (CON TRANSPORTE)	585,90 €			
8 DÍAS (SIN TRANSPORTE)	185,87 €		141,77 €	185,87 €
10 DÍAS (SIN TRANSPORTE)	224,08 €		174,65 €	224,08 €

## BALEARES Y CANARIAS

fecha de inicio de ventas

Castilla La Mancha, Castilla León, Galicia, Madrid y País Vasco

25 NOV - Acreditación plaza garantizada

26 NOV - Acreditación cubrir vacante

27 NOV - Viajes adicionales

Agencia Oficial Acreditada



MINISTERIO DE SANIDAD, SERVICIOS SOCIALES E IGUALDAD



902 200 464  
viajeselcorteingles.es

VIAJES El Corte Inglés

Una sonrisa de ida y vuelta